KONTSULTA OFTALMOLOGIKO BAT

Mª Casilda Arnaez, MªMar Zarate, MªCruz Hernandez, MªLuisa Echevarria, Mª Jesus Alonso, Marta Nuñez.

Oftalmologiko Zerbitzua Basurtuko Ospitalea, Bilbao Bizkaia.

23. Zenbakia

SARRERA

❑Konjuntibitisa, konjuntibaren haunditzeak sortzen du. Mukosa fin eta garden batek betazalen barnea eta esklera estali egiten ditu.
❑Konjuntibitis mota ezberdinak aurki ditzakegu: bakterianoak, birikoak, alergikoak eta traumatikoak.
❑Konjuntibitis birikoa kontsulta oftalmologikorik ohikoena da larrialdietan.
❑Honako sintomak ager daitezke:

- •begiak gorritzea
- •sekrezio konjuntibala handitzea,
- •negar-malkoen gorakada
- •begian zerbait arrotzen presentzia
- •Hazkura
- •Sumindura
- •fotofobia
- •handitu palpebrala
- •gongoil linfatiko aurreaurikularra (batez ere konjuntibitis birikoetan) etab.

❑Lesioak eragin ditzake kornean begi-zorroztasuna gutxituz.
❑Konjuntibitis birikoa oso kutsagarria da. Beraz, kutsadura ekiditzeko, erizaintzako laguntzaile bezala, gure lana oso garrantzitsua da gaixoekin tratu zuzena daukagulako.
❑Tratamenduak ez du birusa akabatzen. Ez dago bere menpe gaixotasunaren iraupena.

HELBURUAK

Konjuntibistis birikoa duten gaixoekin protokolo bat ezartzea zaintza lan oftamologikoetan eta patologia horretan kutsadura ekiditzea

MATERIALAK ETA METODOAK

➢Erizainarentzako segurtasun-neurriak:

- •Eskularruak erabiltzea gaixoarekin kutsatzea saihesteko
- •Eskuak garbitzea gaixoarekin kontaktua izan ondoren
- •Gaixoak ikututako gauzak garbitzea
- •Gaixoak erabilitako kolirioak baztertzea

➢Gaixoarentzako segurtasun-neurriak:

- •Eskuak sarritan garbitzea, besteak ez kutsatzeko
- •Eskuoihal indibidualak erabiltzea
- •Begiak ez ukitzea, beste pertsonekin kontaktua saihestea
- •Higiene palpebrala; gasak eta suero fisiologikoa erabiliz jariapenak garbitzeko
- •Begien gainean txaplata hotzak ipintzea nahigabea arintzeko
- •Egunez eguzkirako betaurrekoak erabiltzea
- •Begiak sarritan lubrifikatzea
- •Kolirioa erabiltzea zoldura ekitzeko
- •Korneak lesioak izanez gero, pomada antibiotikoak eta kortikoideak ematea
- •Sintomak arintzeko pomada edo kolirio antiinflamatoriak erabilitzea

EMAITZAK

Protokolo zehatz bat zehaztuko da konjuntibitis birikoa daukan gaixoa zaintzean eta protokolo hori gauzatu egingo da. Protokolo honekin gaixoari orientabide zehatzak emango zaizkio begi-higienea dela-eta eta honek bere prozesua hobetzen lagunduko dio eta gaixotasuna zabaltzea saihestuko du.

ONDORIOAK

Protokolo bat ezartzea beharrezkoa da. Honek honakoa eskatzen du: argibide zehatzak ematea, osasun arazoak modu eragingarrian erabiltzeko, batez ere izaera erreferentziala dela eta eragindakoak; laguntza beharrak modu eraginkorrean egitea; irakaste lan egokia egitea; osasun langilegoaren lanaren kalitatea, gaixoarengan eragin positiboa izanda.